

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko uztailaren 12a. VIII. urtea. 2.259. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Aralarrek eta Bilduk baztertu dutela dio Tolosako EAJk

Gaurko osoko bilkuran proposamen «kritikoa» egingo du alderdiak ◊2



EAJko zinegotzi guztiak izan ziren agerraldian. I. URKIZU

Asteasuko Juanjoxe Lizasok irabazi du Euskal Herriko Sega Txapelketa

Aurtengo hirugarren txapela jantzi du; Jon Kanflanka leitzarria izan da bigarrena ◊7



S. GOMEZ

→ **80 lagunek amaitu dute Santamañako igoera.** Igandeko Asteasuko Santamañako XI. Kros Igoera proban Zuhaitz Ezpeleta izan zen azkarrena mutiletan, eta Zizurkilgo Aitziber Ibarbia nesken artean. Eskualdeko korrikalari onena, berriz, Villabonako Patxi Urizar izan zen. ◊6

3008 GURE INGENIARIEN NEURONA GUZTIAK DITUZU ESKURA HEMEN

5008

PROBATUZ GERO, HARTUKO DUZU

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-3008
P-5008

Errausketa zero trua berria martxan!
Errausketa labe propizterekin.

Peugeot 3008
Peugeot 5008
Peugeot 3008
Peugeot 5008



EAJko zinegotzi guztiak izan ziren agerraldian. ITZEA URKIZU

EAJk «proposamen kritikoa» egingo du gaurko osoko bilkuran

Ez zaie egokia iruditu, udal batzordeen antolaketa beren ekarpena «kontuan ez izatea»

Itzea Urkizu

Tolosako EAJko hautetsiek agerraldia egin zuten pasa den ostiralean, udaletxeko batzar aretoan, besteak beste, Bilduk eta Aralarrek burutu duten udal antolaketaren inguruko desadostasunak azaltzeko.

EAJren arabera, Ibai Iriarte alkateak deituta, bilera bat egin zuten pasa den uztailaren 4an: «Funtsean Bilduk Aralarrekin legealdiko akordioa burutu zuela azaldu zigun, eta udalaren antolaketa adostu zutela ere bai, Gobernu Batzordearen kideak izendatuz», azaldu zuten EAJko kideek.

Honen aurrean, eta Bilduk eta Aralarrek euren akordioa prentzari azaldu nahi ziotela jakinda,

EAJko udal taldeak bere ekarpena egiteko asmoa erakutsi zien Bildu eta Aralarri. Ondorengo erantzuna jaso zutela azaldu zuten Jokin Azkuek: «Erantzuna izan zen, proposamena nahikoa landua zegoela, eta ekarpenak egiteko beti izango dela tartea». EAJko hautetsiek, «modu egokiena ez dela izan» uste dute, eta osoko bilkuran onartu beharreko proposamen bat Tolosako Udaleko webgunean argitaratu izana ere kritikatu dute: «Bakoitzak atera ditzala atera beharreko ondorioak».

Horrela beraz, EAJko udal taldeak proposamen kritikoa egingo du gaurko osoko bilkuran, beren burua «bazertertuta» ikusi duten arren.

EAJren proposamena

Jokin Azkuek nabarmendu zenez, EAJren ustez bi batzordek izan behar dute Tolosako Udalaren antolaketaren bizkarrezurra. Batek krisiari aurre egitea izango luke helburu nagusi, eta besteak, berriz, bizikidetzeta eta normaliza-

zioa bideratzeko egin beharko luke lan. Bide honetan, Jarduera Ekonomikoaren batzordea sortzea proposatzen du EAJk. Eplegua sustatu eta merkataritza bultzatzeko batzordea behar luke izan euren esanetan, eta «zehirakako batzordea izatea komeniko litzateke». Era berean, Bizikidetzeta eta Normalizaziorako batzordeak bake bidea landu beharko luke, «Juan Jose Ibarretxe lehen-dakariak proposatu zuten *Konpondu* proiektuan oinarrituz».

Honenbestez, bi batzorde nagusi hauek gain, ondorengo batzorde antolaketa proposatuko du EAJren udal taldeak agerraldian: TLS batzordea; Gizarte Politikak eta Ogasuna; Hirigintza, Ingurumena, Herri Azpiegiturak eta Au-zoetarako batzordea; Giza Baliabideak, Udal Antolakuntza, Herriarren Arreta eta Informazio Gizartea; Udaltzaingoa eta Mugikortasuna, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza; Turismoa eta Ferriak; Kontuetarako batzorde berezia eta Ogasuna; eta azkenik, Kirol batzordea.

Dirua eta liberatuak

EAJk, oposizioan ari bada ere, Tolosan inoiz izan dituen emaitza onenak izan dituela gogorarazi zuen agerraldian, bozken %40a jasoz. Honen aurrean, EAJko udal taldeak «oposizio egoki bat» egite aldera, «ezinbestekoa» ikusten du liberazio bat lortzea: «Talde indartsua gara oposizioan, eta zinegotzi ugari ditugu lanean jarduteko». Gainera, ez dute ondo ikusten alkatetzan dagoen alderdiak, zinegotzi bat gehiagorekin, hiru liberatu izatea, eurek bat bera ere ez dutenean.

Apaizak eta hormatxoriak



Bioinztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologo

Urteetan zehar predikatu dute pulpitutik ezkontza sakratua dela eta ezkontzuek hormatxori edo enaren antzera betirako bikotea osatu behar dutela. Izan ere, zenbait zientzialaririk zioenez, udan gure etxeko hormetan habia egiten duten hormatxori edo enarek behin bikote bat aurkitzen dutenean betirako izaten omen da. Urtero bikote berdinarekin habi berera etortzen omen ziren, are gehiago, bikotekidea hiltzen bazen ez omen zuten beste bikoterik bilatzen, alargunduta hiltzen omen ziren txori gaixoak. Ez da harritzekoa beraz, apaizen txoririk gustukoena izatea hormatxoria edo enara!

Egun batez, biologo batek hormatxorien betirako ezkontza hau egia zen ala ez jakiteko, esperimentu bat egin zuen. Uda batean, bere etxeko bost hormatxori bikoteri eraztun bat ipini zien hankan, nortasun agiri baten moduan txori bakoitza banan banan identifikatuz.

Nortasun agiria zuten hormatxori hauek neguan alde egin zuten eta hurrengo udan, apaizen mesedetan, habi berera etorri ziren bikotekide berarekin. Ezkontza perfektua!

Urte horretan biologo hark, hormatxori ar bat hartu eta isatsa moztu zion. Jakin behar da,

hormatxori arrek, beren isatsa erabiltzen dutela emeak erakartzeko; isats luzea eta polita duen arrak emea aurkitzeko aukera gehiago du. Berrito neguan hormatxoriek alde egin zuten eta udan bueltatu ziren.

Baina uda horretan isatsa moztu zioten hormatxoria ez zen agertu eta bere emea beste ar batekin joan zen aurreko urteko habiara. Litekeena da, isats mozteko arrak hil izana, beraz, biologoak bigarren esperimentu bat egin zuen. Bere eskulandegian, hormatxori isats artifizial bat eraiki zuen, oso polita eta batez ere, luzea. Gero ar bat hartu eta isats faltsu hau itsatsi zion ipurdian.

Hurrengo urtean ar honek eme berri bat ekarri zuen eta habi berri bat eraiki zuen berarekin, handik urtebetera, eme hura utzi eta beste eme batekin egin zuen habia, hau gutxi balitz eme berri honek aurrez bazuen bikotekidea, baina alde batera uzi zuen isats artifizialeko arrarekin habia egiteko.

Hurrengo urteetan zehar, isats artifiziala zuen arrak bikote berriak ekartzen zituen etengabe, gainera habi batetik bestera ibiltzen zen beste emeekin 'jolasean' eta urte horietan, biologo horren etxeko paretan zeuden hormatxori kume ia guztiak, isats artifiziala zuen ar horrenak omen ziren. Nahiko argi geratu da 'gaia', ezta?

Eta argi ez bada geratu, galdetu bioinztasunetik@hotmail.com eta, noski, jarraitu zutabetxo hau irakurtzen!

Bide batez, mila esker bihotzez jasotzen ditudan zorion mailengatik, Alegiako eskoako LH3koen eskutituzengatik (tartean etorkituzuneko biologo bat ba omen da) eta kalean zeharreko «hire zutabea irakutzen dut» bezalako esal-diengatik.

'Cars 2' filmaren estreinaldia Leidor-en

Bost saio izango dira ikusgai; astelehenean, ikuslearen eguna dela eta, helduek sarrera merkeagoa izango dute

I. Urkizu

Datorren asteburuan, *Cars* filmaren bigarren zatia estreinaldiaz gozatu ahal izango da.

Cars 2: Una carrera para salvar el mundo, larunbatean, igandean eta astelehenean izango da ikusgai Tolosako Leidor aretoan.

Uztailaren 16an, larunbatean, 17:00etan eta 19:30ean proiektu-tuko dute pelikula, eta igandean ere bai. Astelehenean berriz, hilak 18, 17:00etako saioa soilik izango da. Prezioei dagokienez, hurrek 3,5 euro ordainduko dituzte; helduek, berriz, 5 euro asteburuan, eta 4 euro astelehenean.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ **Laburrak****Danborradarako bigarren entsegua, bihar**

IBARRA ▶ San Bartolome jaietako danborradaren prestaketekin hasi dira. Parte hartzeko izena eman duten haur eta gaztetxoek hurrengo entsegua bihar izango dute. Entsegu guztiak 20:00etan izango dira, Belabieta kiroldegian.

Kuadrila eguneko bazkarirako txartelak

IBARRA ▶ Abuztuaren 28an, igandea, ospatuko den kuadrila eguneko bazkarirako txartelak salgai jarri dira. Txartelak gaur eta hilaren 19an erosi ahal izango dira 19:30etik 21:00etara, plazan. 25 euro kostako dira, eta menua honakoa izango da: Zainzuriak, pate, haragi gisatua, pastela eta kafea. Bazkarirako txartelak koadrilen egunean bertan 40 euroko salneurria izango du eta aparte jarriko den mahaian bazkaldu beharko da.

Herri afarirako txartelak salgai daude

BERASTEGI ▶ Salontzo jaietako hasiera emateko herri afaria antolatu dute. Aurten abuztuaren 5ean izango da afaria, eta txekorra burruntzian jan ahal izango da. 12 urtetik beherakoek 9 euro ordaindu beharko dute, eta beste guztiak 17 euro. Txartelak Urepele Elkartearen, Zelai Tabernaren eta Basurde Elkartearen daude salgai. Epea hilaren 29an amaituko da.

'Reservoir Dogs' filma, udako zinemaldian

LEITZA ▶ Atekabeltz gaztetxeak antolatutako udako zinemaldien azken saioa izango da asteazkenean. Quentin Tarantinoren *Reservoir Dogs* ikusi ahal izango da, bihar, 22:30ean, Atekabeltzen. Talde antolatu bat lapurretan ari dela, sortutako liskarren ondorioen inguruko tirabire buruz hitz egiten du.

ZUZENKETA: (Honako iritzia 2009ko azaroaren 22an *Zurea da hitza* atalean argitaratutako iritzien zuzenketa da.)

OTERMIN PROKURADOREAREN KALTETUAK

Otermin prokuradorearen kalteu bat naiz, gustura elkartuko nintzateke pertsonaia honek eragin dien pertsonekin. Nere helbide elektronikoa *sorginzuol18@wanadoo.es* da.

Juncal Lansalot Urtiberea (Tolosa)

Irudia ▶ **Altzo****UDAN ERE ASPERTZEKO ASTIRIK GABE**

Uda heldu denez, eta haurrek eskolarik ez dutenez, Altzoko haurrak udalak antolatutako ludotekan pasatzen dituzte uztailako opor egunak, aspertzeko astirik izan ez dezaten. Ekainaren 27an hasi zen ludoteka eta hilaren 27an amaituko da, eta bertan hainbat ekitaldi egin dute eta egingo dute, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik

13:00etara. 3 urtetatik 12 urte bitarteko 49 haurrek hartzen dute parte 6 begiraleekin. Egitarau bat prestatuta dute, eta bertan egun bakoitzean egingo duten jarduerak zehaztuta daukate; ezagutza jolasak, herri kirolak, bizi-iraupen eguna, gatzarekin jolasean... Ekitaldi horien artean, San Fermin eguna ospatu zuten zezen eta guzti. HITZA

Asvineneak udako ikastaroak antolatu ditu

Antzerkia eta komikia eta Clown II ikastaroak antolatu ditu Asvinenea eskolak datozen udako asteburuetarako

M. Ugartemendia Aduna

Asvinenea eskolak 2011ko udako ikastaroak antolatu ditu. Uztaillean, zehazki, Komikia eta Antzerkia eta Clown II ikastaroak izango dira.

Antzerkia eta komikiaren ikastaroa hilaren 23an eta 24ean izango da. Clownarena, beriz, hilaren 30ean eta 31n izango da. Ana Perezek emango ditu bi ikastaroak, eta biek ordutegi bera izango dute: 09:30-14:00 eta 15:30-19:30. Prezioari dagokionez, Asvineneako bazkideek 80 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez dire-

nek 90 euro. Izena eman nahi dutenek *asvineneaeskola@gmail.com* helbidera idatzi beharko dute.

Helburuak

Antzerkia eta komikiaren ikastaroan keinuen adierazpena landuko dute. Hautematea edo pertzeptzioa, irudimena eta idazkera eszenikoaren kodifikatzea lantzen ikasi ahal izango da bertan.

Ikastaro honen helburua guztia kontutan hartzen duen irudiaren kontzeptua ulertzea izango da. Estiloa definitzea, komikiaren hizkuntza eszena konkretuetara zuzentzea eta publikoa galduta gabe nortasun aldaketa egitea ere ikastaroko helburuak izango dira.

Clown ikastaroan parte hartzeko esperientzia izatea beharrezkoa da, eta helburua gaur egungo clownaren transposizioa lortzea



Clown ikastaroan parte hartzeko beharrezkoa da esperientzia izatea. HITZA

izango da. Ikastaroan tentsioa askatuko dute, konfiantza eta espresio ariketak egingo dituzte. Gainera, emozioak, entzumena, begirada, improbisatzea edo keinu transmisioen tailerrak ere egingo

dituzte. Ikastaroan parte hartu behar dutenek materiala ere eraman beharko dute: Kamisetak, prakak, gonak, soinekoak, trajeak, kapelak, zapatak, sudur gorriak...

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Etxe adosatua.** Tolosan. Eguzkitsua, 4 gela, 2 bainugela, koma, egongela-jangela handia, sukaldea, 2 autorentzako garaia, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuek deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

LANA

■ **Garbitzailea.** Astelehenetik ostiralera, emakume euskalduna

behar dugu, adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesa dutenek, dei dezatela 686 48 45 72 telefono zenbakira.

■ **Zaintza eta etxeko lanak.** Leitzaldeko emakume euskaldun batek haur nahiz helduak zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako lanetarako bere burua eskaintzen du. Interesatuek deitu 948 51 03 48 telefono zenbakira.

ALEGIA
943 653 097

ISKIÑA
edaritegia
San Juan kalea 59

ETXEBERRIA
edaritegia
San Juan kalea 51



Mendi ibilaldia egin zuten bedaiotarik larunbat goizean; dultzaina entzuteko aukera izan zuten. HITZA

Gazteen omenezko mendi ibilaldian eta erromerian jende ugari bildu da Bedaion

Gazteen oromenez jarrita dauden monolitotara joan ziren goizean; gauean, 120 bildu ziren afarian

I. Garcia Bedaio


Larunbata ekitaldiz betea izan zuten Bedaion. Goizean mendi ibilaldia egin zuten herriko gazteen omenez, eta gauean afariarekin eta erromeriarekin bakatu zuten eguna. Eguraldia lagun egin zuten mendi ibilaldia eta gogoratu zituzten «gure ondoren ez dauden gazteko», azaldu dute Artubi elkartetik. «Ohiuturari jarraituz, hauek eta helduek mendia aliatu ginen, eta bertan, gazteak jarriak dauden monolitotatik oromenezko lore sorta eskaintza egin genuen», gaineratu dute elkartekoek. Dultzinaren doinuak ere izan ziren entzungai Balerdi ma-



Abaetako lorategietan afaldia zuten hainbatok. HITZA

galean, Aitor Agirre gaztearen eskuak. Gusa sartzen ari zenean, Abaete jatekoek sagardotegi meko ataria prest izan zuten. Bertako lorategian nahiz herriko aldean 120 lagun bildu ziren. Sagardoa ziritik dastatzeko aukera izan zuten atalitzera joan zire-

nek. Afalostea gozatu, Bixente Gorostidi eta Unai Milioa bertso-larik izan ziren, eta trikiti plaze-kin alaitzeko, berri, Dorronoro eta Urbietako bikotea. «Egun passaberdia beraz larunbateko, musika, dantza, bertsoak eta jakki ederreztantza», adierazi dute Artubiok.



Adin guztietarako prestatuta dago autobus ibiltariaren zerbitzua. I.GARCIA

Gipuzkoako naturguneen berri, autobus ibiltarian

Ikaztegieta, Ibarra eta Berastegi atzean utzita, Tolosaldean jarraituko du informazio gune ibiltariak

I. Garcia

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutsak bultzatuta, Gipuzkoako naturguneen berri emateko autobus ibiltaria dabil egunotan eskualdetik. Auzen egunetan Berastegi, Ibarra eta Ikaztegiatzen izan da. Autobusaren barnean 40 metro karratuko gela dago eta

bertan herrialdeko parke naturalak, biotopak, ibilbide iragarriak... aurkitu ditzake. Ukitu dutekoen puntaila botuzan hitzetan eta internetera konektatuta dauden ordenagailu bitartez, informazio jaso daiteke gune guzti horietan.

Datozen egunetan eskualdean izango da autobusa eta hainbat herritatik igaroko da. Hilaren 13an eta 14an Abaetakoan izango da, hilaren 15ean berri ere, Ikaztegiatan, hilaren 16an eta 17an Abeltzizketan, hilaren 19an Astegian, Ibarra eta Berastegian izan da. Honako da ordutegia: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.



Ibarako plazan izan zen autobusa larunbatean. I.GARCIA

Txotxongiloen mundua gertutik ezagutzuz

Galot Teatre taldeak txotxongiloen parkea ekarri du Tolosara, mundu hori barrutik ezagutzeko

Inanol Garcia Tolosa

Galot Teatre taldeak hiru egun arri dira bere txotxongiloen parkearekin eta asteburuan Tolosan izan dira. Taldeko Jordi Monserratkisonek, ekarri duguna ez da ikuskinna, jolas gune bat da, bakarra estatuak. 140 txotxongilo eta 15 toloko ditu, eta bertan haurrek eta familia osoak ordu txotxongiloen mundua ezagutu dezake berritiko.

Topik jentzioak ekarri zuten txotxongiloen parkea eta Euskal Herria plazan izan zen bi egunez. Haur eta guraso asko aritu ziren toloetan nahiz zuden txotxongiloak erabiltzen. Teknika guztiak zuden: eskularruena, haritzkoak, mahai-gauekoak, itzal to-

natarrak... Antzinako jolasak ere bazuden, eta horietan, pedali bati emanez kaxa batetik pempina ateratzen zen. Toloko bat bereziki zen, txotxongiloak kortoz eta emorekin eginak baitzuden. Txotxongiloak erabili ahal izateko eta esperimentazio hori egiteko oso erakargarria da. «Jendeak uste du txotxongilo mota bakarra dugutela, hau da, eskularruena, antzetzoki txiki batetik ateratzen diren txotxongiloena», zioen Monserradak. «Baina tailer honekin konturatu dira oso aberatsa dela mundu hau. Denbora erraz pasatzen zaien familiei. Gurasoek esan ohi dute, pentsatzen zutela ordu luze bateko kontua izango zela gutxia bistatzea, eta konturatu direnako ordu bate zera-matela bertan».

Galot Teatrekoek ere nabarmendu zuten ia txotxongilo guztiak egur birziklatuarekin eginak dardela. «Egur guzti herri beste erabileria bat eman nahiz izan diegu, espazio hau dena antolatuz, azaldu zuten Monserradak.



15 toloko jarri zituzten Galot Teatre taldekoek haurrek eta gurasoek txotxongiloak erabiltzeko. HITZA



Txotxongilo erroaldi bat zegoen sokekin mugitzen zena. HITZA



Denbora erraz pasatzen zitzaion haur eta helduei txotxoiaren plazar. HITZA

HITZAren itzaletik ibiltzeko...

Egin harpidedun uztailaren 29a baino lehen eta jaso eguzkitako hau opari

Harremanetarako: 902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

LEIHO ISOLATZAILEAK

- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39

TOLOSALDEKO hitza
bertako egunkaria

902-82 02 01

(Larunegia eta ostiratsuetan 902-82 02 02)

tolosaldeko.hitza.info
leizaldelako.hitza.info

egunero 10:00tik 14:00ra eta larunegia 10:00tik 14:00ra

Aholkularitza: 902-82 02 01 (Larunegia eta ostiratsuetan 902-82 02 02)

Aholkularitza: 902-82 02 01 (Larunegia eta ostiratsuetan 902-82 02 02)

Aholkularitza: 902-82 02 01 (Larunegia eta ostiratsuetan 902-82 02 02)

Aholkularitza: 902-82 02 01 (Larunegia eta ostiratsuetan 902-82 02 02)



Santamañako XI. Igoera 80 lagunek amaitu zuten. SARA GOMEZ

Zuhaitz Ezpeleta eta Aitziber Ibarbia izan dira Santamañan azkarrenak

80 lagunek amaitu dute lasterketa; eskualdeko korrikalari onena Patxi Urizar billabonatarra izan da

A. Imaz Asteasu

Igandean jokatu zen Asteasun Santamañako XI. Kros Igoera. Korrikalariak 7 kilometroko ibilbidea egin zuten. Lehenik, herrian zehar bitzuli eman zituzten eta ondoren, Santamaña igotzen hasi ziren.

Mutiletan lehena Zuhaitz Ezpeleta izan zen, 28:16ko denborarekin. Bigarren postuan, eskualdeko lehena sailkatu zen, hau da, Villabonako Patxi Urizar. Honek, 28 minutu eta 57 segundo behar izan zituen proba amaitzeko. Hirugarren Guillon Rousset sailkatu zen, 28:59ko denborarekin. Eskualdeko bigarrena, Hassan Aitchaou izan zen, billabonatarrak 29:02ko denbora lortu zuen helmugan.

Emakumeetan lehena Aitziber Ibarbia izan zen. Zizurkildarrak



Aurten markak ez dituzte hobetu. SARA GOMEZ

34:10 segundotan amaitu zuen proba. Bigarren, Nerea Amilibia sailkatu zen, hau ere zizurkildarra. Honek 34:28ko denbora egin

zuen. Guztira helmugara 80 korrikalari heldu ziren eta aurtengoan ez dute orain arteko marka gainditzerik lortu.

HITZA Txapelketako finalak jubenilen eta nagusien zain

VIII. edizioaren finalak hilaren 16ean, larunbatean, jokatu dira Beotibar pilotalekuan

A. Imaz

VIII. HITZA Pilota Txapelketa azken astean sartu da. Maila guztietako finalak hilaren 16an, larunbatean, jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan. Finalak 09:30ean hasiko dira eta benjaminak irtengo dira lehenik kantxara, lehen lehia erabakigarria jokatzeko. Ondoren, alebinen, infantilen, kadeteen, jubenilen eta nagusien txanda izango da. Sari banaketa, urtero bezala, eguerdi partean izango da. Jubenilen eta nagusien arteko finala nork jokatuko duten erabakitzea soilik gelditzen da, maila txikietan lau finalistek izenak argi baitaude.

Finalerdiak

Benjaminetan Albizturren elkar-tu ziren ostiralean lau bikote onenak. Esteban-A. Lasa alde batetik eta Iruretagoiena-C. Agirre bestetik. Azken hauek, 16-12ko emaitza lortu zuten. Bigarren finalerdian, Zubeldia-Olanok 10ean utzi zituzten Agirrezabala eta B. Lezea. Bi bikote irabazleek jokatu dute ondorioz, Beotibarreko lehen fi-

↓ **Finalak, uztailak 16**

Benjaminak

Iruretagoiena-Agirre
Zubeldia-Olano

Alebina

Oiarbide-Arandia

Erasun-Ugartemendia

Infantilak

Barriola-Mendia

Bakaikua-Erauskin

Kadeteak

Garaio-E. Aburuza

Urdanpilleta-Iruretagoiena

nala. Alebina ere Albizturren jokatuko zituzten finalerdiak. Aranguren-Zinkunegik 12 tanto egin zituzten Oiarbide-C. Arandiari. Finallean hauen aurkariak, Erasun-Ugartemendiak, 10ean utzi zituzten Zabala eta B. Agirre.

Infantilek Beotibarren jokatuko zituzten finalaurreko lehiak, larunbatean. Peña-A. Urdanpilletak 6-18 galdu zuten norgehiagoka Barriola-C. Mendiaren aurka. Bigarren finalerdian, Santxez-D. Urizarrek 12-18 galdu zuten Bakaikua-B. Erauskinen aurka.

Kadeteek ere Beotibarren jokatuko zuten, egun berean. Garaio-A. Aburuzak 18-15 irabazi zuten, Mugika-C. Balerdiren aurka. Urdanpilleta-B. Iruretagoiena 18-15 gailendu ziren. Galarraga-D. Alduntzinen aurrean.



Zabala-Agirre finaletik at gelditu ziren. R. CALVO



ALEGIAKO UDALA

GUREAN EZ DA BETI JAI
BAINA BADIRA MILA MOTIBO
KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI,
AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA
GUREKIN EZ DAUDENAI

ONDO PASA FESTAK!!!

Plaza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • www.alegia.net

Juanjoxe Lizaso asteasuarrak irabazi du Euskal Herriko Txapelketa

Eskualdeko lau segalariren artean jokatu da finala Oiarzungo Pikoketako zelaietan

Erredakzioa

Urteko laugarren sega txapelketa ofiziala eta azkena jokatu zen igandean Oiarzungo Pikoketaren finala. Ordu beteko lana egin behar izan zuten lehen aritu ziren lau segalarik: Juanjoxe Lizaso (Asteasu, 50 urte); Mikel Alkorta (Donostian jaioa baina Asteasu bizi da, 40 urte); Arkaitz

Arteaga (Baliarrain, 26 urte) eta Jon Kanflankak (Leitza, 30 urte).

Lizaso hasieratik aurrean

Lizasok aurtengo hirugarren txapela jantzi zuen Oiarzungoan, Gipuzkoako Txapelketa ohiko era-koa eta azkartasuneko irabazi ondoren. Asteasuarrak bigarren sailean hartu zuen sailkapeneko burua, eta horrela amaitu zuen. Zazpi sail zituen prestatuta segalari bakoitzak, eta hain justu, Lizaso, Kanflanka eta Alkorta aritu ziren zazpigarren sailean. Ordu beteko denbora agortu zenean, Lizasori soilik maila eta erdi gera-zi zitzaion azken saila ebakitze-ko; Kanflankari eta Alkortari, ber- rriz, bizpahiru maila gehiago; eta

Arteagak seigarren mailaren er- dia amaitu zuen.

Kanflankak eta Alkortak oso lehia estua izan zuten saio osoan, eta ez zuten zigorrik jaso. Hain zu- zen ere, Kanflankak ebaki zuen azkarren lehen saila, eta Alkor- tak bigarren leitzarrarengandik 10 segundora.

Amaieran, Lizasok 5.451 kilo ebaki zituen, 40 kiloko zigorra jaso ondoren. Kanflanka 5.145 ki- lorekin gelditu zen. Hirugarren Mikel Alkorta sailkatu zen, 4.837,5 kilo ebakita. Laugarren Arteaga ballaraindarra gelditu zen, 4.271,5 kilorekin. Lizasok be- zala honek ere bi txartel gorri iku- si zituen, ondorioz, epaileek 40 kilo kendu zizkioten.

Leitzako herri kirolariak Iruñean eta Betelun

Aizkoran, gurdia jasotzen, txingak eroaten eta harri jasotzen aritu dira leitzarrak

A. Imaz Leitza

San Fermin jaiei altzora herri ki- rol proba ugari ospatzen ari dira Iruñean egun hauetan. Igandean aizkolariak eta gudi jasotzaileak elkartu ziren Foruen plazan. Eta bietan leitzarrak txapelarekin itzuli ziren etxera.

Aizkoran Nazabal eta Rekon- dok osatu zuten bikotea eta hasie- ran martxa hartzea kosta baldin bazitzairen ere, amaieran 22:30eko denborarekin lehen postua lortu zuten. Indartsu hasi zirenak Lar- retxea aita-semeak izan ziren. Nazabalek eta Rekondok aurrea hartu zieten ordea, beherako

bideari ekin zitoten eta Lopez eta Senosiainen atzetik hirugarren gelditu ziren.

Gudi jasotzen Josetxo Urrutia ibili zen. Leitzarrak 3 itzuli eta 6,10 zentimetroko lana egin zuen. Lazaro Bujan, hau ere leitzarra, bigarren gelditu zen, itzuli bate- ra, eta hirugarren Javier Galarre- gi, bi itzulira.

Iparraldeko Jokoak Betelun

Torneoaren azken jardunaldia jo- katu zen Betelun larunbatean. Hemen ere leitzarrak ez zen falta izan. Harri jasotzen txapela Laza- ro Bujanek eraman zuen etxera, eta txingak eroaten Miguel Angel Sukuntzak. Lehenak guztira 168 jasoaldi lortu zituen. Bigarrenak, 2663 metroko ibilbidea osatu zuen hiru jardunaldiren ostean. Ipa- rraldeko jokoetan Patxi Baraiba- rrek eta Josetxo Urrutiak ere par- te hartu zuten, txingak eroaten eta harri jasotzen.

Transernio Txapelketan eskualdekoak maila onean

Larunbatean eta igandean Adunako pilotalekuan herrien arteko hamaika partida jokatu ziren

A. Imaz Aduna

Transernio Pilota Txapelketan partida ugari jokatu ziren larun- batean eta igandean. Garaileek aurrera egin zuten eta astebu- ruan beste jardunaldi bat jokatu beharko dute. Aipatzekoa da, benjaminetan Anorgak egin zute- la aurrera, izan ere aurkariak, bi- llabonatarak, ez ziren Adunako frontoira azaldu. Ondorioz, es- kualdekoek partida galdu egin zuten.

↓ Emaitzak

Benjaminak

Asteasu 3
Bidegoian 16

Alebinak

Aduna 8
Altzo-Alegia 16

Aduna

Aduna 16
Bidegoian 5

Infantilak

Añorga 12
Altzo-Alegia 18

Andoain 18
Bidegoian 9

Kadeteak

Andoain 10
Altzo-Alegia 22

Amezketeta 22
Hernani 19



Larunbateko partidetakoa bat. i.e.

Getaria-Tolosa Gipuzkoako Traineru Ligaren lehen postuan

Zumaian bandera berri bat lortu zuten eskualdeko arraunlariak, bigarrena 2 segundora utziaz

A. Imaz

Getaria-Tolosako arraunlariak garaipen estua lortu zuten igan- dean Zumaiaiko uretan. Lehen hiru traineruak 3 segundoren ba- rruan ibili ziren. Hala eta guztiz

ere, eskualdeko arraunlariak osa- turik dagoen traineruak egin zuen denborarik onena. Amaie- ran, Getaria-Tolosak 10:39an gel- ditu zuen kronometroa. Bigarren etxeok gelditu ziren, hau da, Zumaia. Gorriek 10:41eko denbo- ra egin zuten. San Juan izan zen hirugarrena, 10:42ko denborare- kin. Ondoren Orio, Bizkaia eta Hondarribia sailkatu ziren, 25 segundotik bi minutuko tartean. Gipuzkoako II. Traineru Ligan le- hen postuan jarraitzen dute Geta- ria-Tolosakoek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Vascongada ehorztetxeak errausketa-labea inauguratu du

Jaime Otamendi irratiesatariak gidatutako ekitaldian ireki dute Villabonan eskainiko duten zerbitzu berria

Rebeka Calvo Villabona

Villabonako Larrea gunean ireki berri du Vascongada ehorztetxeak bere zerbitzu berria: errausketa-labea duen beilatokia. Inaugurazio ekitaldia pasa den ostiralean izan zen eta Jaime Otamendi irratiesatariak gidatu zuen.

Ekitaldian Otamendirekin batera enpresako aholkulari ordezkariak, Francisco Javier Salgado, eta Villabonako Udaleko Rosa Arregik hartu zuten hitza.

Arregik azpiegitura berri hau urteetan «ahaztuta eta zokoratu-ta» egon den zonalde bati biziberritzeko aukera emango diola argitu zuen, eta baita udaleko ordezkariak pozik daudela Vascon-

gadak eskainiko duen zerbitzua-rekin.

Ibilbide oparoa

Salgadok bere aldetik, Vascongada ehorztetxeak orain arte izandako ibilbideaz hitz egin zuen. Izan ere, Vascongada Tolosan orain 25 urtetik dago, eta orain beilatoki berriari esker, beste zerbitzu berri bat ere eskainiko du: errausketa. «Ez du kutsatzen-argitu zuen Salgadok- eta gaur egun, bezeroek eskatzen duten zerbitzu bat da».

Beilatoki berriari Legorretatik Andoainera bitarteko zerbitzua eskainiko dute, eta edukiarekin batera, gunearen itxura ere gorapatu zuten. Lanak Lurbel enpresak zuzendu ditu, eta zuzenaria Jose Mari Alkorta arkitektoa izan da.

Guneak sarrera zabal eta eroso-a du; hainbat ekitalditara zuzendu daiteken gela, tar-tean, hileta zibilak; eta bi beila-gela ditu. Era berean, aipatu errausketa-la-

bea du. «Azken belaunaldiko errausketa-labea da, kutsadura-eragiten ez duena, iragazki be-

reziei esker gas kutsakorrek ekiditen direlako. Gure asmoa orain arte aipatutako zerbitzuez gain, familiei zuzendutako hitzaldiak eta antzekoak antolatzea da», argitu zuen Salgadok. Vascongadaren Beilatoki berria, Villabonako Larrea 34-1 zenbakian dago, gasolindegia-aren parean.



Jaime Otamendi esatariak aurkeztu zuen ekitaldia. r.c.

Agenda

ERAKUSKETAK

- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketa bisitatu daiteke Ekomuseoan, iraila arte.
- **Tolosa.** Binearreko titiritero-en erakusketa Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan urriaren 2a bitarte. Irailak 30 bitarte udako ordu-tegian ikusi ahal izango da erakusketa, hau da, lanegunetan 11:00etatik 14:00etara, 16:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etan 14:00etara, eta 16:00etatik 21:00etara.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbaren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Janitz Sagastibeltza Bengoetxea (Leitza). Igandean 4 urte bete zituen. Urte askotarako eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak



HITZAK harpidedunentzat **afari txartelak** ditu

Villabonan uztailearen 14, 15, 16 eta 17an ospatuko den

15. Garagardo Azokarako,

bi pertsonentzako **4 afari** zozketatuko ditugu.

Egun bakoitzerako afari bat.

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



hitza